

GOBERNU BATZARRA

2015. 11. 09

Alkatea:

Olatz Peón Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Beh. Beh. Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko azaroaren bederatzian 08:00tan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-lurreamendi egoitza: urriko kuoten likidazioa.

3.-Etxez-Etxeko zerbitzua: Ilarkiren faktura.

4.-Tolosaldea Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa 2015eko iraileko faktura.

5.-Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren ekarpena Tolosaldea Garatzen, S.A., enpresari.

6.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Familia ugarien hobaria.

7.-33/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko azaroaren 2an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- lurreamendi egoitza: urriko kuoten likidazioa.

lurreamendi egoitzak urriko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Iurreamendi egoitzari ordaintzea urriko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **18.997,73 €**-koa, honela banatuta:

1. Autonomoen kostua: 649,76 €
2. Elbarrien defizita: 18.347,97 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

3.- Etxez-Etxeko zerbitzua: Ilarkiren faktura.

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako **72.350,68** euroko faktura onartzea, urriko Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

4.- Tolosaldea Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa 2015eko iraileko faktura.

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa: atez-atekoa, landa eremuko eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira. Hori dela-eta, formula bat garatu da Mankomunitatearen baitan herri bakoitzak egin beharreko ekarpenak modu orekatu eta justuan banatzeko.

Horrela, bi zatitan banatzen da udal bakoitzak egin beharreko ekarpena:

- * **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturaleri dagokiena.

***Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2015ko urriaren 14an faktura aurkeztu du. Iraileko kuota dagokion gastu finkoa eta aldakorrarekin eta aldakorraren kontzeptu barruan dauden puntu berdea eta birziklagarrien sarrerekin.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako faktura hau:

Fra. 2015/10/14117.596,75 €

BIGARRENA- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Zerbitzu arloari eta Tolosaldea Mankomunitateari.

5.-Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren ekarpena Tolosaldea Garatzen, S.A, enpresari.

Eskualdeko proiektu estrategikoetarako funtsa bat sortzeko ekimenarekin bat egitea erabaki zuen Udalbatzak, 2014ko apirilaren 29an egin zuen Osoko Bilkuran.

Funtsa hornitzeko konpromisoa 2014, 2015, 2016 eta 2017ko ekitaldietarako hartu zen, eta urte bakoitzeko ekarpenaren kopurua aurreko urteko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan kobratutakoaren %10a izatea erabaki zen.

2014 urtean zehar udalek guztira 125.933,77 euroko ekarpena egin zuten, 2013ko JEZren bidez jaso zutenaren %10. Tolosako udalaren kasuan, 36.738,72 euro izan ziren.

Tolosaldea Garatzeneko Administrazio kontseiluak, 2015eko urriaren 15ean ospatutako bileran, diru hori ondorengo proiektu estrategikoei ekarpena egiteko erabiltzea adostu zuen:

SUSTATZAILEA	ONARTUTAKO GEHIENEO EKARPENA
TOLOSALDEKO INSTITUTOA.INMAKULADA IKASTETXEA	40.059 €
EGOITZ ZALAKAIN	40.059 €
PEÑASCAL	21.725 €
DONBOSCO PAPER ESKOLA INDARTZEKO ELKARTEA	11.137 €

Tolosaldea Garatzen, S.A. garapen agentziak 2015 urteari dagokion ekarpena egitea eskatu du Tolosaldeko Proiektu Estrategikoen Funtzari.

2015eko ekarpena ondorengo likidazioaren arabera kalkulatu da:

2014ko bilketa	Bildutakoa	Itzulketak	Bilketa garbia
Oraingo ekitaldia	266.742,49	7.152,92	259.589,57
Itxitako ekitaldiak	80.425,97		80.425,97
Kobratutakoa	347.168,46	7.152,92	340.015,54
Ekarpena (%10)			34.001,55

Beraz, aiptutakoa kontuan izanik eta Kontuhartzailletza departamentuak egindako txostenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Tolosaldea Garatzen, S.A., enpresari 2015eko ekitaldian Eskualdeko proiektu estrategikoetarako funtsa hornitzeko 34.001,55 euroko ekarpena egitea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ingurumena departamentuari, Kontuhartzailetzari eta Tolosaldea Garatzen, S.A., garapen agentziari.

6.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Familia ugarien hobaria.

I.P.S.ak, 2015eko urriaren 23an, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan familia ugarietara dagokien hobaria eskatu du.

Ordenantza fiskalaren 8. artikuluko 2. atalak esaten du hobari honetaz gozatzeko subjektu pasiboak eskatu egin behar duela, eta eskaera otsailaren 28a baino lehen egin behar dela.

Baina, kontuan izanik, kasu hau etxe berri bati dagokiola, Ogasunak eraikinaren balore katastrala 3 urte beranduago jarri duela eta orain likidatu zaizkiola 2013, 2014 eta 2015 urteetako dagozkien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak. Eta agiriak jaso dituenetan etorri direla Tolosaldeko udalera familia ugarien hobaria aplikatzeko eskatuz.

Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Egoera berezi hau ikusita, eta nahiz eta printzipioz eskaera epe kanpo egin, goian aipatutako Ondasun Higiezinaren gaineko zergei familia ugarietara dagokien hobaria ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

7- 33/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.

Kontuhartzaitzak **33/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **199.734,73** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **33/2015** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:

Langunea Tolosaldean 2015.-

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Laguntza-deialdia, zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2015eko martxoaren 25ean egindako bilkuran (2015eko martxoaren 31n argitaratu zen EHAOn).

Tolosako Udalak 366.333 euroko programa bat aurkeztu zuen 2015eko ekainaren 22an.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusianaren ebazpenaren bidez Tolosako Udalari 366.060,59 euroko dirulaguntza eman zitzaion.

Ildo horretatik, hainbat enpresek interesa azaldu dute "Langunea Tolosaldean 2015" programan parte hartzeko eta programako partaideak kontratatzeko.

Hau dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren aipatzen diren enpresei dirulaguntza hauek ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko diren hitzarmenean jarritakoak betetzen badituzte.

Enpresa	Kontratu kopurua	Kontratu iraupena	Lanaldia	Langilea	Dirulaguntza
M. Jesús Oñati-	1	6 hilabete	Osoa	Mª L.M.M.	8.291,63

via Gonzalez de Uriarte					
Obeki Electric Machines, S.L.	2	6 hilabete	Osoa	J.R.A. JT. J. A.	6.000,00 9.000,00
Irupaper	2	6 hilabete	Osoa	M.Z.P. JC.G.S.	9.000,00 9.000,00
Gastearena	1	6 hilabete	Osoa	JM.E.A.	6.000,00

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Enplegu departamentuari, Kontuhartzailetzari eta interesatuei.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:30 tan.

ALKATEA

IDAZKARIA